2026eko urtarrilaren 17a

# Albiste eta informazio interesgarriak

## EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN 8. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

Joan den astelehenean, hilak 19, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren 8. Urteurrena ospatu zen lau hiriburuetan eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gutxi gorabehera 75 herritan. Zenbait herritan, hala nola Elgoibarren eta Eibarren, hilaren 15ean eta 17an ospatu zuten, hurrenez hurren.

Egin ziren elkarretaratze eta ekitaldietara ohiko kontzentrazioetara baino jende gehiago joan zen, eta 8 urtez etengabe protestak eta mobilizazioak egiten ari den pentsiodunen mugimendua osasuntsu dagoela erakutsi zuen, era berean, kolektiboarentzako bizi-baldintza duinak lortzeko beharrezko den diru-sarrera lortu arte borrokarekin jarraitzeko asmoa eta prestutasuna agerian utzi zuen.

Ekitaldi guztietan irakurri zen EHPMren manifestua –kasu batzuetan laburpena–, egindako protesta eta mobilizazioen ondorioz lortutakoak gogoraraziz, eta azpimarratuz jarraitu egin behar dela, lortutakoa defendatzeko eta guztiontzako pentsio publiko eta duinak lortzeko modu bakarra delako, bereziki lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatu daitezen gutxieneko pentsioak, eta, horrela, urrats erraldoia eman pentsioetan dagoen genero arrakala gainditzeko.

Azpimarratu zen, baita ere, berebiziko garrantzia duela osasungintza eta zaintza-zerbitzu publiko eta kalitatezkoak lortzea, eta eskubide sozial eta demokratikoen aldeko borroka eta protesta guztiekin solidarioak izatea, aurrean dugun egoera nahasi eta korapilatsua ikusita.

Ekitaldion errebindikazio izaeratik haratago, guztietan eman nahi izan zitzaion egunari herri-giroko ospakizun eta gozamen kutsua; nahiz eta horietako batzuetan, urte hauetan bidean utzi gaituzten hildako kideak oroitzeko ere baliatu zuten.

Herri askotan musika, bertsoak (Azpeitia, Bergara, Donostia... Gipuzkoan) eta abestiak izan ziren nagusi, eta ez ziren falta izan, gure herrian ohi den bezala, betiko aperitibo eta saldak ere.

Hiri eta herri batzuetako manifestazioak nahiko ugariak izan ziren. Elgoibarren, hilaren 15ean egin zen, eta 17an egin zen Eibarrekoan 300 pertsonak




parte hartu zuten eta herri bazkaria ere egin zuten. Gainerakoak, 19an egin ziren. Gasteizko manifestazioan 250 lagunek parte hartu zuen, eta Posta plazan pentsiodunen mugimendua nola hasi zen irudikatu zuten, Fatima Bañezen %0,25eko igoera iragarriz igorri zuen gutun barregarri eta umiliagarriaren aurka. Durangon 100 lagun elkartu ziren manifestazio alaitsua egiteko, eta inguruan zeuden herritarren harrera adeitsua lortu zuten. Eta Bilbon, udaletxetik abiatu eta kalejiran Alde Zaharra zeharkatu zuten elkartu ziren 450 pentsiodunek.

Ezinezkoa da hilaren 19an garatu ziren ekimen guztiak lerro hauetan jasotzea. Baina badago bat aipatu gabe utzi ezin duguna: Arrasaten egin zena, hain zuzen ere, non, herriko gazteek pentsiodunen mugimendua osatzen duen belaunaldia omendu

nahi izan zuten daramaten borrokarengatik, eta elkartasuna adierazi zioten, ohorezko aurreskua dantzatuz.

Urteurren honek, 8 urteko etengabeko borroka adierazten duen arren, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak harrotasunez, onarpen sozial garrantzitsuarekin eta duintasunez bizitzeko dagozkigun oinarrizko eskubideen defentsan borrokan jarraitzeko gogo eta baikortasunarekin jarraitzen duela erakutsi zuen.




Tasioren txokoa

## INFLAZIOA PIXKA BAT APALDU DA 2025EKO ITXIERAN, BAINA EROSKETA SASKIAREN KOSTUA OSO ALTU MANTENDU DA

Hego Euskal Herriko inflazioa pixka bat apaldu egin zen 2025eko itxieran, eta %2,9koa izan zen. Baina erosketa-saskia %3,9 garestitu zen, eta Araban eta Nafarroan igoera %4tik gorakoa izan zen.

Gehien garestitu diren produktuen artean, arrautzak (%35,6), behi-haragia (%21) eta kafea (%15,3) daude. Eta merkatu direnen artean olioa dago, baina 2021etik gaur arte %59,2ko igoera metatua izan du. Bestalde, etxebizitzaren prezioa %5,3 igo da.

Erosketa saskiaren kostuak dakarren arazoa ez da bakarrik 2025ean %3,9ko igoera izan duela, pentsio gehienei aplikatuko diguten %2,7ko igoera baino %1,2 gehiago delako. Kontua da, urtez urte igoera KPIaren oso gainetik dagoela eta metatuz doala, eta, beraz, oinarrizko elikagaien erosteko ahalmena urtez urte murrizten ari dela, eta horrek eragin handiagoa du pentsio eta soldata txikienak dituztenengan. Beste horrenbeste gertatzen da etxebizitzarekin, belaunaldi gazteentzat eta kalteberatasun-egoeran dauden familia eta pertsonentzat teorian eskubidea badute ere, gero eta zailagoa egiten zaielako lortzea.

Pentsioak eta soldatak hobetzea eta oinarrizko produktuen prezioen igoera eskandalagarriari muga jartzea, bizi-baldintza duinak bermatzeko, borrokarako erronka iraunkorra da, eta pentsiodunek, langileek eta gainerako sektore herrikoiek lehen lerroan mantendu behar dugu.



## OSASUN BIDASOA PLATAFORMAK SALATU DU OSAKIDETZAK ESKUALDERAKO EGINDAKO PROMESAK EZ DIRELA BETE

Osasun Bidasoa plataformak, 40 elkarte biltzen dituenak, gehienak Irun eta Hondarribiako udalerrietakoak, joan den asteko ostiralean salatu zuen Osakidetzak, Euskal Osasun Zerbitzuak, eskualdeko osasun-arreta hobetzeko promesak ez dituela bete.

Ohar batean salatu zuen Osakidetzak Bidasoa Ospitaleko larrialdi pediatrikoen zerbitzua itxi egin zuela, eta, aldi berean, agindu zuela haurrentzako arreta zerbitzua hobetu egingo zela osasun zentroetan, baina ia urtebete geroago anbulatorioetako pediatria eta osasun mentaleko arreta prekarioa izaten jarraitzen dutela, eta iragarritako neurriak ez direla bete.

Era berean, deitoratu zuen espezialista batek artatzeko edo proba diagnostikoak egiteko itxaron zerrendak hobetu gabe daudela oraindik, eta iragarritako obretako bat bera ere ez dela hasi. Salatu zuen, halaber, Irun Erdialdeko instalazioetan lau kontsultak kanpoaldeko behin-behineko barrakoietan jarraitzen dutela artatzen, duela bost urte baino gehiagotik.

Dauden arazoak kontuan hartuz eta Osakidetzak ez duenez hitza bete, herritarrek mobilizazioak deituko dituztela iragarri dute. Eskualdeko pentsiodunen mugimendua Osasun Bidasoa Plataforma osatzen duten elkarteen parte da modu aktiboan, eta interesgarritzat jotzen ditu batasuna eta aniztasuna helburu duten ekimenak, horrela protesta eta mobilizazio zabalagoak eta parte-hartzaileagoak lortzen direlako, Osakidetza neurriak hartzera eta salatutako arazoak konpontzera behartzeko.




## PENTSIODUNEN KEXAK KO-ORDAINKETA FARMAZEUTIKOENGATIK

Azken asteetan, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) bere kide batzuen kexak jaso ditu, orain arte sendagaiengatik ordaintzen izan duten diru-kopurua baino gehiago ordaindu behar izan dutelako. Osakidetzak inolako azalpen publikorik eman gabe, konturatu dira farmaziara erosten joaterakoan gehiago kobratu dietela.

Kezka handia sortzen du batez ere pentsio baxua dutenen artean, zeren eta sendagaiak behar dituzten pentsiodun askorentzat ko-ordainketa horrek kostu handia eragiten dietelako. Informazio gisara baino ez bada ere, pentsiodunentzako ko-ordainketa farmazeutikoa nola ezarrita dagoen jasotzen dugu jarraian.

. **11.209 eurotik beherako errentak urtean**. Farmazia-ordainketatik salbuetsita daude.

. **11.209 eta 18.000 euro arteko errentak urtean**. %10 ordainduko dute, gehienez 8,23 euro hilean.

. **18.000 eta 100.000 euro arteko errentak urtean**. %10 ordainduko dute, hilean 18,52 euroko mugarekin.

. **100.000 eurotik gorako errentak urtean**. %10 ordainduko dute, hilean 61,75 euroko gehieneko mugarekin.

### Sendagaiak ordaintzetik salbuetsita dauden taldeak

. Kotizazio gabeko pentsioak dituzten pertsonak.

. Gizarteratzea jasotzen duten pertsonak (esaterako, DSBE).

. Subsidioa agortu duten iraupen luzeko langabeak.

. Desgaitasuna duten eta sindrome toxikoa duten pertsonak.

. %33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua duten adingabeak.

Ko-ordainketari buruzko informazioa Osakidetzaren osasun-txartelean dago (OTI), eta urtero eguneratzen da Ogasunak Osakidetzari ematen dizkion jasotako




diru-sarreren datuekin. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren urteko laguntzak daude farmazia-gastua konpentsatzeko. Baldintza batzuk betetzen badira, apiriletik maiatzera bitartean eska daitezke osasun-zentroetan edo Osakidetzan, modu telematikoan.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik (EHPM) uste dugu Osakidetzak jendaurrean jarri beharko lituzkela ko-ordainketaren baldintzen eta horietan urtero gerta daitezkeen aldaketen berri. Era berean, batez ere sendagaien ko-ordainketarako diru-sarrera txikienen baremoak gorantz aldatu behar dira, duela urte askotatik berdin mantentzen direlako eta gaur egun ez dutelako balio bera inflazioarengatik. Halaber, badira gaixotasun kronikoak dituzten pertsonentzako sendagai jakin batzuk garestiak direnak, eta ordaintzeko salbuespen batzuk beharko lituzketenak.

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN SAILAREN ETA BPM-REN ARTEKO BILERA

Joan den astelehenean, urtarrilak 19, Bizkaiko Pentsiodunen Mugimenduko (BPM-MPB) ordezkaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailaren deialdi bati erantzunez, sail horren egoitzan egindako bilera batera joan zen, eta Itxaso Berrojalbiz Foru Diputatu andreak eta Ogasuneko zuzendari nagusiak Antonio Pérez Delgado jaunak, aurtengo urtarriletik aurrera PFEZ efektiboaren konturako atxikipenei buruzko funtsezko berrikuntza baten berri eman ziguten.

Berrojalbiz andreak jakinarazi zigun Foru Ogasunak akordio bat lortu duela GSINekin, PFEZren konturako atxikipenak doitzeko lan-mutualitateei 1978. urtearen amaierara arte ekarpenak egin dizkietenei.

Orain arte, Gizarte Segurantzak ez du kontuan hartu zerga-oinarriko kenkaria – "kopuru ez-integratua" –, ekarpen horiek zergapetze bikoitza suposatu dute, beraz, egindako atxikipenak logikaz eta legez dagozkionak baino handiagoak izan dira. Jakina, 2025eko ekitaldian atxikipenen soberakin hori berreskuratu egingo da, dagokion atzerapenarekin, 2026ko apiriletik uztailera bitartean egin beharreko urte horri dagokion aitorpenean.

Lortutako akordioa 2026ko urtarrileko pentsioaren likidaziotik aurrera izango da eraginkorra, eta, logikoa denez, 2027ko apiriletik uztailera bitartean aurkeztu beharreko urte horri buruzko aitorpenean izango du eragina. Nolanahi ere, argi geratzen da akordio hori aplikatzeak berehala ekarriko duela pentsio garbiak igotzea, mutualista guztiei eragingo diena, eta, bereziki, zerga-oinarria murriztearen ondorioz zerga-tasa txikiagoak eragiten dienei.

Ogasun Sailaren arabera, neurriak 128.000 pentsiodun mutualista bizkaitarri eragingo die, eta urteko sarrera fiskalak 100 milioi euro baino



zertxobait gutxiago murriztea ekarriko du, Bizkaiko lurralde historikoan.

Giro ona izan zen bileran, eta arduradun politiko horiek GSINekin egindako akordioari buruzko informazio zehatza emateko borondatea agertu zuten. Azpimarratzekoa da, halaber, zerga-gaietan solaskide garrantzitsu gisa aitortua izateak gure mugimenduarentzat duen garrantzia.

Abenduan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin PFEZaren atxikipenak zuzentzeko akordioak lortzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren antzeko ekimen bat Arabakoek eta Gipuzkoakoek ere egin behar zutela jakinarazi zen. Ez dakigu horrelako akordio batera iritsi den, baina logikoa dirudi eta pentsa daiteke lurralde hauetan ere antzeko zerbait aplikatuko dela.

## EZKERRALDEKO ETA MEATZALDEKO PENTSIODUNEN ESKUALDEKO MOBILIZAZIOA OTSAILAREN 2AN

Otsailaren 2an, astelehena, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Pentsiodunen Mugimenduak manifestazioa egingo du Gurutzeta auzoko kaleetan zehar, eta Ospitalearen aurreko plazan amaituko da. Bi eskualde hauetan Osakidetzaren zerbitzuek izan dituzten murrizketak eta noraezak salatzea da helburua, zeinetan berriro ere nabarmenak izan diren Gabonetako oporretan egon direnak. Honi udako eta Aste Santuko oporraldietan gertatu ohi denari lotzen badizkiogu, urtean bost hilabetez osasun arreta oso eskasa eskaintzen zaie, eta horren aurrean ez da neurririk hartzen. Era berean, aditzera emango dute baita ere, Osasun sailburuak Osakidetza osasun-zerbitzu publiko gisa hobetzeko planei buruz egindako adierazpenek, pribatizatutako zerbitzuak murriztu direla adieraziz, marketin kanpina baterako propaganda kutsu gehiago duela errealitatean dena baino, salatuko dute.



Datozen hilabeteetarako beste herri batzuetan aurreikusita dituzte eskualdeko mobilizazioak egitea, pentsioen, osasunaren eta zaintzaren aldeko aldarrikapenekin, pentsiodun gehiagorengana iristeko eta bi eskualdeetako pentsiodunen mugimenduaren aitorpen soziala indartzeko helburuarekin, era berean EHPMren oihartzuna handitzeko.






24 de enero de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## CELEBRACIÓN DEL 8 ANIVERSARIO DEL MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA

El pasado lunes día 19 se llevó acabo en las cuatro capitales y en unos 75 pueblos de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa la celebración del 8 Aniversario del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria. En algunos pueblos como Elgoibar y Eibar lo celebraron los días 15 y 17 respectivamente.

A las concentraciones y actos que se llevaron a cabo acudió más gente que a las concentraciones habituales, poniendo de manifiesto la importancia de un movimiento de pensionistas que tras 8 años de protestas y movilizaciones ininterrumpidas se mantiene con ánimo y disposición de continuar con la lucha hasta conseguir los ingresos necesarios para acceder a unas condiciones de vida dignas de todos/as pensionistas.

En todos los actos se dio lectura al manifiesto del MPEH –en algunos casos de un modo resumido– recordando los logros obtenidos como consecuencia de las protestas y movilizaciones realizadas, subrayando que hay que continuar con ellas pues es el único modo de defender lo conseguido y lograr unas pensiones públicas y dignas para todos y todas, en especial unas pensiones mínimas equiparables al salario mínimo interprofesional, y dar así un paso de gigante para superar la brecha de género en las pensiones.




De igual modo, destacando la importancia vital de conseguir una sanidad y servicios de cuidados públicos y de calidad; y de ser solidarios con todas las luchas y protestas en defensa de los derechos sociales y democráticos ante un panorama tan convulso y complicado al que nos enfrentamos.




Más allá del carácter reivindicativo de los actos, en todos ellos se quiso dar al día el carácter de celebración popular y disfrute, aunque en varios de ellos también hubo un recuerdo para los compañeros/as fallecidos que nos han dejado en el camino estos años.

En una buena parte de los pueblos hubo música, se cantaron bertsos (Azpeitia, Bergara, Donostia... en Gipuzkoa) y canciones y no faltaron, como es costumbre en nuestro país, unos buenos aperitivos y caldos para acompañarlos.

En algunas ciudades y localidades se llevaron a cabo manifestaciones con una buena participación. En

Elgoibar el día 15. En Eibar el día 17 con 300 personas y una comida popular. El resto, el día 19. En Gasteiz se manifestaron 250 pensionistas que escenificaron en la plaza de Correos cómo se inició el movimiento de pensionistas en protesta contra la carta de Fátima Báñez con la ridícula y humillante subida del 0,25 %. En Durango lo hicieron por las calles de la localidad 100 pensionistas, con un buen ambiente y aceptación entre la gente del pueblo. Y en Bilbao, partieron del Ayuntamiento y en kalejira recorrieron el Casco Viejo con la participación de 450 compañeras/os.

Recoger en estas líneas todas las iniciativas que se desarrollaron el día 19 es un imposible. Pero hay una que no podemos dejar de resaltar: en Arrasate (Mondragón) jóvenes de la localidad brindaron un aurresku de honor al movimiento de pensionistas por su lucha, queriendo expresar la solidaridad de los y las jóvenes con la generación de las personas mayores que componen el movimiento de pensionistas y que siguen en la pelea.

Este 8 Aniversario volvió a mostrar que, a pesar de 8 años de lucha ininterrumpida, el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria se mantiene con orgullo, con un reconocimiento social importante y con el ánimo y la disposición a continuar con la pelea en defensa de unos derechos básicos que nos corresponden para vivir con dignidad.




El rincón de Tasio

## LA INFLACIÓN SE MODERA LIGERAMENTE AL CIERRE DE 2025, PERO EL COSTE DE LA CESTA DE LA COMPRA SE MANTIENE MUY ALTO

La inflación en Hego Euskal Herria se moderó un poquito al cierre de 2025, situándose en un 2,9 %. Pero la cesta de la compra se encareció hasta el 3,9 %, con un aumento algo superior al 4 % en Araba y Navarra.

Entre los productos que más se han encarecido se encuentran los huevos (35,6 %), la carne de vacuno (21 %) y el café (15,3 %). Y entre los que se han abaratado está el aceite, pero desde el año 2021 hasta la actualidad ha tenido una subida acumulada del 59,2 %. Por otro lado, el precio de la vivienda ha subido en un 5,3 %.

El problema del coste de la cesta de la compra no está solo en que en el año 2025 se haya situado en un 3,9 %, un 1,2 % más de la subida que nos va a aplicar a la mayoría de las pensiones del 2,7 %. La cuestión es que año tras año su incremento está muy por encima del IPC y se va acumulando, con lo que la capacidad adquisitiva de los productos básicos de alimentación se va reduciendo año tras año, lo cual repercute de un modo más severo todavía en las pensiones y salarios más bajos. Otro tanto ocurre con la vivienda,



convirtiéndose en un derecho cada vez más imposible para las generaciones jóvenes como para las familias y personas en condiciones de vulnerabilidad.

Mejorar pensiones y salarios y poner coto al aumento escandaloso de los precios de los productos básicos, para garantizar unas condiciones de vida dignas, es un reto permanente de lucha que pensionistas, trabajadores/as y demás sectores populares debemos mantener en primera línea.

## LA PLATAFORMA OSASUN BIDASOA DENUNCIA EL INCUMPLIMIENTO DE LAS PROMESAS DE OSAKIDETZA PARA LA COMARCA

La plataforma Osasun Bidasoa, compuesta por 40 asociaciones, en su mayoría de los municipios de Irún y Hondarribia, denunció el viernes de la semana pasada el incumplimiento de las promesas de mejoras de la atención sanitaria en la comarca por parte del Servicio Vasco de Salud, Osakidetza.




Denunció en una nota que Osakidetza clausuró las urgencias pediátricas del Hospital Bidasoa a la vez que prometió mejorar la atención a la infancia en los centros de salud, pero casi un año después la atención pediátrica en los ambulatorios y en salud mental sigue siendo precaria y no se han cumplido las medidas anunciadas.

Asimismo, se lamentó de que las listas de espera para ser atendidos por un especialista o para realizar pruebas diagnósticas siguen sin mejorar y de que no se ha empezado ninguna de las obras anunciadas. Denunció también que en las instalaciones de Irun Centro continúan atendiendo cuatro consultas en barracones provisionales y exteriores provisionales desde hace más de cinco años.

Ante estos problemas y los incumplimientos de Osakidetza, anuncia la próxima convocatoria de movilizaciones ciudadanas. El movimiento de pensionistas de la comarca, forma parte de un modo activo de las asociaciones que componen la Plataforma Osasun Bidasoa y considera de interés iniciativas de este tipo por su carácter unitario y plural, y porque así se consiguen protestas y movilizaciones más amplias y participativas que obliguen a Osakidetza a tomar medidas y resolver los problemas denunciados.

## QUEJAS DE PERSONAS PENSIONISTAS POR EL COPAGO FARMACÉUTICO

En las últimas semanas el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) hemos recibido quejas de compañeros/as que han debido realizar pagos más altos por sus medicamentos, de los que hasta ahora realizaban. Sin ninguna explicación pública por parte de Osakidetza se han encontrado con que al acudir a la farmacia para adquirir un medicamento han debido abonar una cantidad superior al habitual.

La preocupación es grande, pues para muchas personas pensionistas con pensiones bajas y con necesidad de medicamentos, el abono parcial de éstos les supone un costo significativo habida cuenta de sus bajas pensiones. Siquiera a modo de información, recogemos a continuación cómo está establecido el copago farmacéutico para las personas pensionistas.

. **Rentas inferiores a 11.209 euros al año.** Están exentas del pago farmacéutico.

. **Rentas entre 11.209 y 18.000 euros al año**. Pagarán un 10 % con un tope máximo de 8,23 euros al mes.

. **Rentas entre 18.000 y 100.000 euros año**. Pagarán un 10 % con un tope de 18,52 euros al mes.

. **Rentas superiores a 100.000 euros año**. Pagarán el 10 % con un tope máximo de 61,75 euros al mes.

**Grupos que también están exentos de pagar los medicamentos**

. Personas con pensiones no contributivas.

. Personas perceptoras de integración social (como la RGI).

. Parados/as de larga duración que han agotado el subsidio.

. Personas con discapacidad y afectadas por el síndrome tóxico.

. Menores con discapacidad reconocida igual o superior al 33 %.

La información relativa al copago está contenida en la tarjeta sanitaria de Osakidetza (TIS) y se actualiza anualmente con los datos de los ingresos percibidos, que facilita Hacienda a Osakidetza. Asimismo, existen ayudas anuales del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco para compensar el gasto farmacéutico que, si se cumplen unos requisitos, se pueden solicitar entre los meses de abril y mayo en los centros de salud o en Osakidetza de forma telemática.

Desde el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) consideramos que Osakidetza debe informar públicamente de las condiciones del copago y de las variaciones que se puedan dar anualmente en las mismas. De igual modo, que, sobre todo los baremos de los ingresos más bajos para el copago de los medicamentos deben modificarse al alza, pues se mantienen por igual desde hace muchos años y en la actualidad no tienen el mismo valor por la inflación.




Asimismo, hay determinados medicamentos para personas con enfermedades crónicas que cuestan mucho dinero y deberían conocer ciertas exenciones de pago.

## REUNIÓN DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA CON EL BPM/MP

El pasado lunes, 19 de enero, una representación del Movimiento de Pensionistas de Bizkaia (BPM- MPB) respondiendo a una convocatoria del Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Bizkaia acudió a una reunión en la sede de dicho departamento para ser informados por la Diputada Foral, Sra. Itxaso Berrojalbiz y el Director General de Hacienda, Sr. Antonio Pérez Delgado, de una novedad sustancial en las retenciones a cuenta del IRPF efectiva a partir de enero de este año y de la que informamos a continuación.

La Sra. Berrojalbiz nos informó que la Hacienda Foral ha llegado a un acuerdo con el INSS para que se ajusten las retenciones a cuenta del IRPF a los afectados por haber realizado aportaciones a las mutualidades laborales hasta el fin del año 1978.

Hasta ahora la Seguridad Social no ha tenido en consideración la deducción en la base imponible –"cantidad no integrada"– como consecuencia de la doble imposición que supusieron esas aportaciones



con lo que las retenciones practicadas han sido superiores a las que por lógica y legalmente corresponden. Obviamente ese exceso en las retenciones durante el ejercicio 2025 se recuperará, con la correspondiente demora, en la declaración correspondiente a ese año a realizar entre abril y julio de 2026.

El acuerdo alcanzado será efectivo a partir de la liquidación de la pensión correspondiente al mes de enero de 2026 y afectará, lógicamente, a la declaración relativa a ese año a presentar entre abril y julio de 2027. En todo caso queda claro que la aplicación de ese acuerdo redundará de forma inmediata en una elevación de las pensiones netas que afectará a todos los mutualistas y muy en particular a aquellos que, como consecuencia de la disminución de la base imponible, se vean afectados por un tipo impositivo menor.

Según el Departamento de Hacienda la medida afectará a unos 128.000 pensionistas mutualistas vizcaínos/as y representará una disminución de los ingresos fiscales anuales de algo menos de 100 millones de euros, en el territorio histórico de Bizkaia.

Hubo un buen ambiente en la reunión y voluntad por parte de estos responsables políticos de aportar información precisa sobre el acuerdo con el INSS. También es de subrayar la importancia que para nuestro movimiento tiene el ser reconocido como interlocutor relevante en las cuestiones fiscales.

En diciembre se hizo público que una iniciativa similar a la de la Diputación Foral de Bizkaia para llegar a acuerdos de corrección sobre las retenciones del IRPF con el INSS, la iban a llevar a cabo también las de Araba y Gipuzkoa. No tenemos conocimiento de si se ha llegado a un acuerdo de este tipo, pero parece lógico y cabe pensar que en estos territorios se aplique algo similar.



## MOVILIZACIÓN COMARCAL PENSIONISTA DE EZKERRALDEA Y MEATZALDEA EL 2 DE FEBRERO

El lunes 2 de febrero el Movimiento Pensionista de Ezkerraldea (Margen Izquierda) y Meatzaldea (Zona Minera) llevará a cabo una manifestación por las calles del barrio de Cruces (Bilbao) y culminará en la plaza delante del Hospital. El motivo de la misma es denunciar los recortes y limitaciones de los servicios de Osakidetza en ambas comarcas, que se han hecho otra vez más muy patentes en las vacaciones navideñas, al igual que suele ocurrir en los periodos vacacionales de verano y Semana Santa, sumando así cinco meses con una atención sanitaria muy deficiente, y ante la que no se toman medidas. Al mismo tiempo pondrán de manifiesto que las declaraciones del consejero de Sanidad, sobre los planes de mejora de Osakidetza como servicio público de salud, reduciendo los servicios privatizados, tienen más de marketing propagandístico que de realidad.




Para los próximos meses tienen previstas movilizaciones comarcales en otros pueblos, con las reivindicaciones de pensiones, salud y cuidados, con la vista puesta en llegar a más gente pensionista y reforzar el reconocimiento social del movimiento de pensionistas de ambas comarcas, y por prolongación del MPEH.